



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

ALDI BATERAKO KONTRATAZIO ZERRENDAK

34. buletina (2006ko irailaren 8an argitaratua)

- **Laburpena:**

1. **Kostu Azterketetarako goi mailako 2 teknikari lanpostu aldi baterako betetzea**
2. **Garbitzaile, jostun eta lisatzaileak aldi baterako kontratatzeko zerrenda handitzea**

- **Zehaztapenak:**

1. **Kostu Azterketetarako goi mailako 2 teknikari lanpostu aldi baterako betetzea**

- Ogasun eta Aurrekontu Saileko Kostu Azterketetarako goi-mailako 2 teknikari lanpostu aldi baterako betetzeko kontratazioa egin beharra dago.

- **Bete beharreko baldintzak:** Unibertsitateko goi-mailako Ekonomia titulua, Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziatua edo Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua.

- **Balioetsiko direnak:** Kostu Sistemak eta Kudeaketa Adierazleak (ABC metodologia) aztertu, diseinatu eta abiaraztearen alorreko prestakuntza eta esperientzia –egiaztatzen delarik–, bereziki toki administrazio publikoetan eta batez ere azken hiru urteetan. Informatika aplikazioen alorreko ezagutzak eta praktika: kalkulu orriak, datu baseak... (Excel, Access...). Euskara, 3. hizkuntza eskakizuna.

- **Kontratu mota:** bitarteko funtzionarioa, programa dela eta. Lanpostu bat 4 hilabeterako; bestea, berriz, 2007ko irailaren 30era arte. Lanaldia: % 100. Bulego ordutegia. Hileko soldata gordina: 2.702,27 euro.

- **Lanpostuko zereginak:**

- Kostu prozesu eta aztarnen analisi eta diseinuan laguntzea.
- Udal sail eta zerbitzuetako datuak biltzea (2005eko ekitaldia).
- Udalaren kontabilitate analitikoaren euskarri informatikoa diseinatu eta abiarazten parte hartzea.
- Udal sail eta zerbitzuen kudeaketa-adierazleen analisi eta diseinuan parte hartzea.
- Zerga sistemari buruzko batzorde txostengileak berariaz eskatzen dituen kostu azterketak egiten parte hartzea.
- Sail, erakunde autonomo eta sozietate anonimoetako zuzendaritzekin batera lan egitea, berariazko azterketak egiteko, egindako kostu azterketak, kudeaketa tresna gisa, duen potentziala aintzat harturik.
- Egindako kostu sistema eskuz aldatu eta, gerora, onik zaintzeko prozesuan parte hartzea.
- Kostuei eta kudeaketa eta kalitate adierazleei buruzko sistema abiaraztearen inguruko amaierako txostena egitea.
- Zerbitzuko arduradunek agindutakoak, lanbide kategoria horri dagozkiolarik.

- Izangaien onarpena LANGAIren laguntzarekin egingo da ezarritako irizpideei jarraiki. Hortaz, interesaturik bazaude, erakunde horren jendaurreko bulegoetakoren batera jo beharko duzu, eta 162006010788 zenbakiko hautatze prozesuan sar zaitzatela eskatu, **2006ko irailaren 15a arte** (hori barne).

- Informazio gehiago edo interneten bidez izena eman nahi izanez gero, www.lanbide.net orrira jo, bilatzailearen erreferentzia sartuta zuzenean eramango zaitu eskaintzara, eta hor ezartzen den prozedurari jarraitu beharko diozu.

- Hautaketa prozesuak bi zati izango ditu. Lehenengoan bete beharreko baldintzak betetzen dituztenen artetik aurre-hautaketa egingo da, "balioetsiko direnak" atalean jasotzen diren merezimenduak kontuan hartuta, eta 8 hoberenak aukeratuko dira. Bigarrenean, berriz, baldintzen eta lanpostuko zereginen inguruko ahozko proba teoriko-praktikoa egin beharko dute aurre-hautaketan aukeratuek.
- Proba teoriko-praktikoa egiteko onartu eta bazter utzitako pertsonen zerrendari buruzko informazioa 2006ko irailaren 20ko 13:00etatik aurrera emango da, 010 telefonoan (945 161100 Gasteiztik kanpotik deituz gero); orobat argitaratuko da zerrenda udaletxeko iragarki taulan (Espainia plaza) nahiz udalaren web orrian. <http://www.vitoria-gasteiz.org>
- Funtzio Publikoaren zinegotzi ordezkariaren 2005eko maiatzaren 10eko ebazpenaren bidez onetsi zen "Aldi baterako hautaketa prozesuen prozedura"rekin bat burutuko da deialdi hau. Udalaren web orrian ikus daiteke hori, <http://www.vitoria-gasteiz.org>

2. Garbitzaile, jostun eta lisatzaileak aldi baterako kontratatzeko zerrenda handitzea

Funtzio Publikoaren Arloko zinegotzi ordezkariaren 2006ko irailaren 7ko ebazpenaren bidez, Aldi Baterako Kontratazio Zerrendaren Jarraipen Batzordeak hala proposatua, garbitzaile, jostun eta lisatzaileak aldi baterako kontratatzeko zerrenda azken EPEan parte hartu eta 4. txandako lehen 50 postuetan dauden hautagaiekin handitzea erabaki zen.

Dagokion zerrendako egoera eguneratu dezaten, informazio horren berri emateko gutuna bidaliko zaie interesatuei.

- **Argibideetarako telefonoa: 010 (Gasteiztik kanpotik deituz gero: 945 16 11 00)**
- **Udalaren web-orria: <http://www.vitoria-gasteiz.org>**
- **Aurretik argitaratutako beste agiri batzuk:**

Aldi Baterako Kontratazio Zerrendak Kudeatzeko Araudia.

Buletin honen argitalpenari buruzko informazioa eskatzeko nahiz aurrerantzean gehiago ez jasotzeko aski duzu ondoko helbide elektronikora idaztea (izen-deiturak eta nortasun-agiriaren zenbakia adierazi):

seleccpersonal02@vitoria-gasteiz.org
seleccpersonal03@vitoria-gasteiz.org

**HAUTAKETA ETA GARAPEN ATALA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILA**